

XXIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko Jauna, Zuk gaituzu salbatzen
 eta zeure seme-alabatzat hartzen;
 ikus begi onez hain maite dituzun zeure seme-alabak,
 eta Kristorengan sinesten dugunoi
 emaguzu egiazko askatasuna eta betiko bizia.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jk 9, 13-19

Nork asma dezake, Jainkoak nahi duena?

Jakinduriaren liburutik

Nork ezagutu dezake Jainkoaren asmoa?
 Edota nork asma, Jainkoak nahi duena?
 Gizaki hilkorren asmoak hutsak dira,
 eta aldakorrek gure burubideak.
 Gorputz ustelkor hau astun baitzaio arimari,
 eta buztinezko txabola honek
 gehiago nekarazten du, berez kezkatu den gogoia.
 Lurreko gauzak doi-doi asmatzen ditugu,
 eta esku artekoak nekez aurkitzen.
 Nork aztarnatu zerukoak?
 Nork ezagutu zure asmoa,
 Zeuk jakinduria eman gabe,
 goi horretatik zure Espiritu Santua bidali gabe?
 Horrek zuzenduko ditu lurrekoen bideak,
 eta ikasiko dute gizakiek, Zuri atsegin zaizuna;
 jakinduriak salbatuko ditu, Jauna,
 hasieratik zure gogoia egiten dutenak.

ERANTZUN SALMOA: Sal 89, 3-4. 5-6. 12-13. 14 eta 17

**R/. Jauna, gure ihesleku Zu izan zara,
 gizalditik gizaldira.**

Hauts bihurrazten dituzu gizakiak,
 hau esanez: «Itzul zaitezte gizakumeak.»
 Zure begientzat mila urte,
 atzo igaro zen eguna adina,
 gau-txanda bat adina. R/.

Amets gertatzen dira Zuk eramatean,

goizeko belar heze antzean:
goizean hezerik da garatzen,
arratsaldean zimeltzen da, eta ihartzen. R/.

Gure egunak bat-banatzen erakutsiezaguzu,
bihur dakigula bihotz hau zuhur.
Itzul zakizkigu, Jauna; noiz arte?
Jar zaitetz zeure morroi eta mirabeen alde. R/.

Zeure maitasunaz ase gaituzu goizean,
gure egun guztietan poztu eta alaitu gaitezen.
Gugana bedi Jaunaren, gure Jainkoaren, ontasuna,
gure eskulanean lagun gaitzazu,
eta gure eskuen lana lagundu ezazu! R/.

II. IRAKURGAIA: Flm 9b-10. 12-17

*Hartzazu morroi bezala baino gehiago,
anaia maite bezala.*

San Paulo Apostoluak Filemoni

Anaia maite: Nik, Paulok, zahartua eta orain gainera Jesu Kristorengatik giltzapean nagoen honek, giltzapean sortu dudan nire seme Onesimorentzat egiten dizut eske.

Bera bidaltzen dizut; bera, bai, nire seme bihotzekoa. Neurekin eduki nahi nuen, zure orde zerbizari izan nezan, berri onarengatik espetxean nagoen bitartean. Hala ere, ez dut zure baimenik gabe ezer egin nahi izan, zure egintza on hori behartuta egina izan ez zedin, gogoz egina baizik.

Beharbada, horretarako aldegin zizun apur batez, gero betiko zeurekin har dezazun; ez, ordea, morroi bezala; morroi bezala baino gehiago, anaia maite bezala: niretzat maite-maitea da, baina zuretzat maiteago, gizon bezala eta kristau bezala. Beraz, ni adiskide banauzu, hartzazu bera neu banintz bezala.

EBANJELIOA: Lk 14, 25-33

Aleluia: Sal 118, 135

R/. Aleluia.

V/. Erakuts aurpegia argi zeure morroiari,
irakats zeure arauak niri. R/.

*Dituen guztiak uzten ez dituen,
ezin daiteke nire ikasle izan.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, jende asko zihoan Jesusekin, eta haietara bihurtuta, esan zien: «Inor Nirekin etortzen bada, eta bere aita eta ama, bere emaztea, seme-alabak, anai-arrebak, eta bere burua Ni baino maiteago baditu, ezin daiteke nire ikasle izan. Bere gurutzeta hartu eta Nirekin ez datorrena ezin daiteke nire ikasle izan.

Izan ere, zuetan inork dorre bat egin nahi badu, ez al da lehenengo, eserita, zenbat eralki beharko duen ikusten, bukatzeko hainbat ba ote daukan? Oinarriak jarri eta gero, bukatu ezinean ikusten dutenek barre egin ez diezaioten, esanez: "Hona hemen, etxegintzan hasi, eta bukatu ezinik gelditu zen gizona".

Edota errege batek, beste errege baten aurka gudu egitera ateratzean, ez al du lehenengo, eserita, aztertzen, hoge mila gizonekin datorrenari, hamar milarekin ba ote diezaiokeen gogor egin? Eta ezin badu, hura urruti den bitartean, mandatariak bidaltzen dizkio, bakea eskatzera. Horrela zuek ere: dituen guztiak uzten ez dituen, ezin daiteke nire ikasle izan».

Oparigaien gainekoa

Jauna, bakearen eta egiazko maitasunaren iturria,
iguzu, eskaintza honekin zure handitasuna gorets dezagula
eta, sakramentu hau harturik,
gogo leialez Zurekin bat egin dezagula.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zure fededunak hitzaren eta sakarmentuaren janariaz
hazten dituzu eta biziberritzen;
emaguzu, zure Seme maitearen dohain handiz baliaturik,
beti Berarekin bat eginik bizitzea.
Errege bizi baita.